

2022

Jardueren memoria

eko
lurra



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi



GAINBEGIRATU eta ONARTU

du:

Sin.: Arantza Eguzkiza

**Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseiluaren lehendakariak**

Data:

2023/03/20

1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA	3
1.	SARRERA	5
2.	ORGANIGRAMA 2022	6
3.	KONTSEILUAREN JARDUNA 2022	8
4.	KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARAUA.....	9
4.1.	BARNE KOMUNIKAZIOA.....	9
4.2.	EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI	12
4.2.1.	Kanpainak	12
4.2.2.	Sare sozialak eta blog-a	14
4.2.3.	Zuzeneko komunikazioa	15
4.2.4.	Hitzaldi eta mahai teknikoak	18
4.2.5.	Erakusketa ibiltaria	24
4.2.6.	Merchandising	25
4.3.	EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN	26
4.4.	EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.....	26
4.4.1.	Hitzaldiak eta formakuntza.....	26
4.5.	KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.....	28
4.5.1.	EKOEUS azoka profesionalak	28
4.5.2.	EKOAZOKA txikiak.....	35
4.5.3.	Merkaturatze sarea	38
4.5.4.	Salmenta puntuen mapa	39
4.6.	KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU.....	40
5.	ERREGISTRO KONTROL IKUSKARITZA ETA ZIURTAPEN PLANA.....	43
5.1	ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO KONTSULTEI ARRETA	43
5.2	ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK	43
5.3	KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA.....	43
5.4	FORMAKUNTZA	43
5.5	INTERECOn PARTE HARTZEA	43
5.6	KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK	44

5.6.1	Eragile ekologikoen erroldaren banaketa 2022ko abenduaren 31n	44
5.6.2	2022an izandako izen-emateak eta bajak	47
6.	2022KO KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK	52
	Ziurtatutako produktuen analisiak:	53

1. SARRERA

Kontseiluaren barne antolamendua sendotzeko urtea izan dela orokortu daiteke. 2021 urtearen bukaeran hasitako prozesuan kanpo laguntza garrantzitsua izan dugu, Iker Hernandez-en adituaren eskutik. Organigrama zehaztea eta Komunikazio guneak sendotzea funtsezkoak izan dira.

2022ean, berriz ere berritu da Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena, Kontseiluaren jarduerak garatzea ahalbidetu duena, FOPE ekimenean planteatutako ekintza batzuk barne. Gainera, kalitate-araubideetan babestutako elikagaiak sustatzeko neurrietarako laguntza-deialdian sartu ahal izan gara. Laguntza horiek eragile berriek edo 2022an orientazio berria erregistratu dutenek ere eskuratu ahal izan dituzte.

Eko, bio edota organiko izenekin ezagutzen den ekoizpen eredu honetan ari den eragile eroldari dagokionez, aurtan ere haunditzen jarraitu du baina kontseiluaren ibilbideko igoerarik txikiena izan da aurtengoa, %1. Eskaera kopurua jaistearekin batera, inoizko baja kopuru haundiena izan dugu, gehienak jarduna utzi dutelako.

Kontrol eta ziurtapen arloan, aurretik zegoen lan taldea sendotzeko urtea izanda. Arautegi berria aplikatzen hasi gara 2022an. Inoiz baino kontrol lan gehiago gehiago egin dira eroldak haunditzen jarraitu duelako. Emaitzak ikusita, Euskadin Nekazaritza Ekologikoa egiten diharduen nekazari, abeltzain, elaborazio eta merkaturatzaile enpresen profesionaltasuna eta ekoizpen eredu ekologikoarekiko kontzientzia maila, oso altuak direla esan daiteke.

Komunikazio arloan ere lan taldea finkatu da eta aipagarria izan da HAZIrekin abiatu den elkarlana FOPE egitasmoaren kontextuan, lehendabiziko aldiz "Ekologikoa, dena hobetzen" Kanpaina elkarlanean antolatu da. Lehendabiziko aldiz Nekazaritza Ekologikoaren Europako eguna ospatu da irailaren 23an. Sare sozialetan egiten zen lana asko indartu da aurtan. Gainerakoan, Kontseiluak egindako sustapen-jardueren tipologiak aurreko urteetan ezarritako dinamikari eutsi dio.


Kontseiluko kideei dagokionez, beraien legegintzaldiko azken urtea izan da hau. Hauteskundeak abiatu zituzten maiatzean eta 2023an talde berria jarriko da lanean. Lehenago, barne funtzionamendua, barne arautegia, lan hitzarmena eta finantziarioa bezalako gai potoloak finkatu nahi izan dituzte.

2. ORGANIGRAMA 2022

AGINTARITZA ESKUDUNA

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza: *Javier Plasencia Cuadrado*

KONTSEILUA



Gobernu organoak KONTSEILUA OSATZEN DUTEN KIDEAK:

Lehendakaria: ARANTZA EGUZKIZA BEOBIDE Lehendakariordea: AITOR OTEGI EPELDE

Ekoizleen azpieroaldaren kide titularra:

Araba: JOSE MARIA MARTINEZ DE ANTOÑA (ZAIRA DEL RIOk ordezkatzen du)

Bizkaia: ROMAN BENGOA LARRAÑAGA (URDASPAL ALBERDI URIAK ordezkatzen du)

AINHOA ALAVA ALBIZUA

Elaboratzaile, inportatzaile eta merkaturatzaileen erroldako kide titularra:

JOSE RAMON ARRIETA ZIALZETA

MARIA LEIRE ALBISU URIARTE

IKER IGLESIAS EGUIA

Euskadiko kontsumitzaileen elkarten ordezkaria: ION ARIÑO. KOLDO LEZAMIZ gonbidatu gisa deitu da, Ekokontsumo Federazioaren ordezkari gisa.

Euskadiko Administrazio Orokorraren ordezkaria: JAVIER PLASENCIA CUADRADO (Elikagaien Kalitateko Zuzendaria) Ordezkoa: IÑAKI LOPETEGI SALEGI

Foru-aldundien ordezkariak:

Araba: M^a ASUNCION QUINTANA URIARTE (Nekazaritza Zuzendaria). Ordezkoa: PATXI XABIER LAUZURIKA.

Gipuzkoa: XABIER ARRUTI (Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaria). Ordezkoa: FERNANDO DIEZ

Bizkaia: ARANTZA ATUTXA (Nekazaritzako Zuzendari Orokorra) Ordezkoa: PATXI ZABALA

Idazkaria: XABIER LEJARZEGI (Kontseiluko Zuzendaria)

Ziurtapen batzordea

Produktua ziurtatzeko jardueran Kontseiluaren inpartzialtasuna babesteko sortutako kanpoko organoa, interes berezia duten alderdi guztien parte-hartzearen bidez; beraz, ez da interes bakar bat ere nagusi, eta kideak zuzendaritza-taldearekiko independenteak dira:

Administrazioa (GV): Javier Plasencia, Iñaki Lopetegui; **Ziurtapenean adituak** (HAZI): Amaia Jauregi, Patricia de la Torre; **Kontsumitzaileak**: Ion Ariño (EKE), Koldo Lezamiz (Ekokontsumo Federazioa); **Elaboratzaileak**: Iker Iglesias, Jose Ramon Arrieta, **Ekoizleak**: Ainhoa Alava, Zaira del Rio, **Merkaturatzaileak**: Alberto Sanchez, Rubén Modino

ZUZENDARITZA

Xabier Lejarzegi

KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA

Ziurtapen teknikaria eta kalitate sistemaren arduraduna: Itxaso Cadenato.

Auditoreak: Irantzu Alegria, Amaia Lopez, Esti Martinez, Edurne Ortun, Mikel Guerque eta Haritz Mayora.

KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN ARLOA

Teknikariak: Nagore Usabel eta Amaia Esnaola

ADMINISTRAZIO ARLOA

Kristina Somozas, (Igor Petralanda, ordezkoa)

3. KONTSEILUAREN JARDUNA 2022

Urtean zehar hainbat bilera egin dira, gehienak telematikoak izaten jarraitu dira baina presentzialak ere izan dira tartean. Kontseiluaren osoko bilkurak 3 bilera egin ditu, honako gai-zerrenda hauekin:

2022/02/08ko GAI-ZERRENDA

1. *Aurreko akta onartu, eta egiteke gelditu ziren gaien egoera berrikusi .*
2. *Barne arautegian aldaketa bat onartu.*
3. *Salmenta zuzenerako arbelaren diseinu berria aurkeztu (jarraipena)*
4. *2022 urteko lan egutegia onartu.*
5. *INTERECO, kuota berrien inguruan informatu.*
6. *2021 urteko kontu ekonomikoak aurkeztu.*
7. *2022 urterako lanak eta aurrekontua onartu..*
8. *EJren 2022rako laguntza lerroen azalpena (Jorge Garbisu).*
9. *Kontseiluko kideen hautaketarako prozedura eta egutegia aztertu eta onartu.*
10. *Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.*
11. *Galde-eskeak.*
12. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

2022/05/17ko GAI-ZERRENDA

1. *Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi .*
2. *Barne arautegian aldaketa bat onartu hauteskunde prozesuari dagokionez.*
3. *2022 urterako komunikazio eta sustapen plana*
4. *Kontrol eta ziurtapen esparruan kontingentzia plana.*
5. *Dirulaguntzetan jartzen diren baldintzen inguruko hausnarketa bat, batez ere gutxieneko abere edota azalera kopuruei dagokionez.*
6. *Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.*
7. *Galde-eskeak.*
8. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

2022/10/04ko GAI-ZERRENDA

1. *Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi .*
2. *Hauteskunde prozesuaren azken ordua.*
3. *Lan hitzarmena berriztatzeke lan batzorde baten eraketa.*
4. *Nekazaritza Ekologikoaren 2022 laguntzetara aurkeztutako proiektuen berri izan.*
5. *Kontrol eta ziurtapen esparruan azken ordua + Laguntzetan aitortutako lurren kontrola Aldundientzat +Alta berrien koordinazioa Aldundiekin .*
6. *Ekolurra markaren araudian aldaketa batzuen onarpena.*
7. *Nekazaritza ekologikoari buruzko HAZIren publizitate kanpainaren, aurkezpena.*
8. *DUINA proiektuaren emaitzen laburpena.*
9. *Coaching proposamena aztertzea. "Antolaketa-kultura eraldatzeko prozesuaren 2. Fasea".*
10. *Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.*
11. *Galde-eskeak.*
12. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

4. KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARAUA

Kontseilutik burutzen diren sustapen eta komunikazio ekintzak 6 helburu nagusitan biltzen dira FOPE egitasmoa oinarri hartzen delarik; barne komunikazioa, ekoizpen ekologikoaren jarduera balioan jarri gizartean, Ekolurra proiektua dinamizatu sektorean, ekoizpen ekologikoaren hazkundera bultzatu EAEn, Kontseiluak ziurtatutako EKO elikagaien eskaintza bistaratu eta komunikabideekin harremana sortu eta sendotu.

4.1. BARNE KOMUNIKAZIOA

2022an ere barne komunikazioari arreta berezia eman zaio. Eragileei informazio desberdina helarazten eta laguntza eskainiz: buletin digitalen bidez, epea duten ekintza interesgarriak eta eragileentzako interesgarriak diren gaiak lantzeko Ekolurra buletin digitala sortu da. Bestalde, eragileen zalantzak argitzeko eta komunikazio pertsonalizatua bidaltzeko tresna emaila izan da.

Barne boletin digitala

2022ko udan 69. barne buletin digitala argitaratu zen, bertan Kontseiluaren egoera, Padura Baratzeko biodibertsitatearen gai tematikoa, BC3 artikulo zientifikoa eta albiste laburrak bildu ziren. Paperaren erabilera murrizteko helburuarekin buletina digitalean bidali zen eta eskaripean paperean jasotzeko aukera ere zabaldu zen.



Hauteskundeak

2022an Kontseiluko zuzendaritza batzordea hautatzeko prozesua hasi zen. Kontseiluko Zuzendaritza Batzorde honek jada lau urteko agintaldia bete du, eta Kontseiluak hura berritzeko eta dagokion hauteskunde-prozesua deitzeko izapideari ekin zion.

Hauteskunde arauetan aldaketa garrantzitsuak egin behar izan dira, batik bat Emakume Nekazariaren

Estatutuak agindutakoa bete ahal izateko. Erakunde eta elkarte desberdinen aginte batzordeetan emakumeen presentzia bermatzeko asmoz, emakumeen presentzia gutxienez %40koa izan behar da. Kontseiluaren kasuan, hauteskundeetan aukeratzen diren 8 kideen artean oreka mantentzeko erdi eta erdi izan beharko dira. Orain arteko arauekin ez zegoen emaitza hau bermatzerik.



Zerbitzuen katalogoa

Kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinen katalogoa egin da; diagnostikoen zerbitzua, Ekolurra bereizgarria, egoitzaren erabilera, salmentarako euskarriak... Katalogo honen helburua kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eragileei ezagutaraztea eta izen-ematen diren eragile berriei zerbitzu berri hauek jakinaraztea izan da.



Deskargatu
hemen
zerbitzuen
katalogoa

Urte berria zoriondu

2019an hasi genuen ekintzari jarraipena emanez, 2022an ere urte berria zoriondu da eragile guztiei Gabonetako postal bana bidaliz. Postal hori Irati Bazeta ilustratzaileak, Ekologikoan jarduten duen eragile baten alabak, ilustratu du.



Eragile berriei ongi etorri saioa

Ekainaren 21ean ongietorri saioa egin genuen azken urtean erregistratutako eragile ekologiko berriein. 2021eko ekainaz geroztik, 77 izan dira izena eman duten proiektu berriak. Ongi etorri saioaren bidez, eragile berriei laguntza eman nahi izan zaie. Europako araudi ekologikoari buruzko oinarrizko nozio bat eman zaie, Kontseiluaren egoitza erakutsi eta Kontseilutik ematen ditugun zerbitzu desberdinen berri eman zaie.



4.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI

4.2.1. Kanpainak

Komunikazio kanpainak FOPE egitasmoan A7.11 lan ildoaren baitan biltzen dira.

Kanpaina orokorra



“Ekologikoak gara, naturala delako” izan da kanpainaren slogana edo idea nagusia eta bi helburu izan ditu; alde batetik, ekoizlearengan jarri da arreta, ekologikoaren eredugarritasuna erakutsiz, eta aukera honen aldeko erabakia hartu ez dutenei, ikuspegi hau indartuz. Bestalde, erosleei ere zuzendu zaie, ekologikoaren aldeko aukera naturala dela erakutsiz, eguneroko praktikako ereduen bidez.

Kanpaina hau kanal anitzekoa izan da eta presentzia nabarmena izan du: telebistan, irratian, prentsa digitalean, mupie eta markesinetan eta marketin online-ean.

Kanpainaren emaitzei dagokienez, marketing digitalean 738.484 pertsonengan inpaktua izan zuen eta guztira 3.030.067 aldiz ikusi zen publizitatea 4,26ko frekuentziarekin. Publizitatean 19.152 pertsonen interakzioa lortu zen.

Prentsa digitalean ohikoa den bezala, Vocento taldeko hedabideak dira CTR% (publizitatean click emandako ehuneko) emaitzarik onenak eman zituztenak. Bestalde, publizitate programatikoa kanpainak, VTR% (publizitatea ikusten hasi eta ikusten amaitu zutenen portzentaia) bikaina izan zuen.

Kanpaina honekin lotuta, “**Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Egunean**” ETB1 eta ETB2ko eguraldia saioetan ekoizpen ekologikoaren argazkiak eta ekoizpen ekologikoaren aipamena egitea lortu zen.



Irailaren 23an, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Egunean, prentsurrekoa antolatu zen Donostian, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako egoitzan. Bertan, Bittor Orozek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeak eta Arantza Eguskizak, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko presidentak, Euskadin Nekazaritza Ekologikoaren inguruko datuak eta izandako ibilbidearen balorazioa egin zuten. Horrez gain, **“Ekologikoak gara, naturala delako”** kanpaina aurkeztu zen kanpainari hasiera emanez.



Gabon garaian sare sozialetan kanpaina bat egin zen gabonetan ere elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzeko asmoz **"Gabonetan ere ekologikoa, dena hobetzeko!"**. Lortutako emaitzak hauek izan ziren; kanpaina 151.016 pertsonara iritsi zen eta guztira 562.466 ikustaldi izan zituen.


Horrez gain, gabonetan zozketatu ziren bi saski ekologikoen zozketa zabaltzeko asmoz, Instagramen saskiak publizitatu genituen eta honekin 38.393 ikustaldi lortu ziren 17.895 pertsonengana iritsiz, 800 iruzkin, 680 gustatu eta 544 bisita lortu ziren guztira @ekolurra erabiltzailean.



Egunean behin jolasaren babesletza

Egunean Behin jolasaren 9. denboraldia babestu zen martxoaren 14tik 20ra ekoizpen ekologikoaren informazioa helarazteko. Guztira 60.144 pertsonak parte hartu zuten eta 341.960 partida jolastu ziren. Iragarkian 2.628 pertsonak egin zuten klik eta gure webguneko elikagai ekologikoen bilatzailerara bideratuak izan ziren.

Saria:



4.2.2. Sare sozialak eta blog-a

Sare sozialak eta blog-a FOPE egitasmoan A7.5 lan ildoaren baitan biltzen dira.

Sare sozialak eta webguneko bloga Kontseiluaren jardueren berri emateko erabili dira batez ere, sare sozial bakoitza berezko dituen ezaugarrietara egokituz. Facebook, blogeko postak bideratzeko; Twitter, esaldi laburrez mezu desberdinak jakinarazteko eta instagram irudiz mezuak, sentsazioak, e.a transmititzeko erabili dira.

Sarea	Datuak
Facebook	4000 gustuko dut eta 4300 jarraitzaile.
Twitter	1033 jarraitzaile
Instagram	3257 jarraitzaile

Web orriaren egokitzapena

Web orria FOPE egitasmoan A7.9 lan ildoaren baitan biltzen da.

Urtean zehar ekolurra.eus web orria Wordpress Software sistemara egokitu da webgune librea izateko asmoz. Wordpress kode irekiko softwarea da. Horrek esan nahi du iturburu-kodea guztion eskura dagoela.

Honez gain, atal berri batzuk sortu dira; salmenta puntuen mapa, ekoizpen ekologikoan izena emateko landing page orrialde bat eta Udako azoka ekologikoen garaian azokari zuzendutako orrialde bat. Webgunera igotako blog edukiak sareetan partekatu dira webgunera bisitak erakartzeko asmoz.

4.2.3. Zuzeneko komunikazioa

Dibulgaziorako materiala

Dibulgazio materialak FOPE egitasmoan A7.7 lan ildoaren baitan biltzen dira.

Ardoaren eta olioaren argudio eskuorriak eta panelak egin dira 2021ean sortu ziren dibulgazio materiala borobiltzeko asmoz. Alde batetik, eragileen artean banatzeko argudio eskuorriak daude; arrautzak, barazkiak, esnekiak, haragia, ardoa eta olio. Helburua sektore bezala ekoizpen ekologikoaren onuren argudioak bateratzea izan da. Eta kontsumitzaileari begira, ekoizpen ekologikoaren ezaugarriak laburbiltzen dituen informazio eskuorria eskuragarri izatea. Eta bestetik, erakusketa ibiltariari ardoaren eta olioaren panela ere gehitu zaskio.



Lurzorua egitaraua

Lurzorua hezkuntza zerbitzua, erakusketara bisitaldiak eta ate irekiak FOPE egitasmoaren baita A7.8 lan ildoaren baitan jasota daude.

Informatua eta prestatua egon daiteken kontsumitzaile kolektiboen artean eskola-komunitatea inabarmetzen da; etorkizuneko kontsumitzaile gisa duten garrantziagatik, eskola-munduan elikadura osasungarri eta arduratsuekiko dagoen sentsibilitatea handitzen doalako eta irakasleek ekoizpen ekologikoari buruz duten prestakuntza eta informazio eskasagatik. Kontseiluaren helburuen artean hezkuntza-komunitatean presente egotea dago, ekoizpen ekologikoaren hedapenean eta sustapenean erreferentziatzko erakunde gisa, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa propio baten bidez, ikastetxeei tresna aplikagarri eta erabilgarri bat eskaintzeko, ikastetxeko curriculumean sartutako gai horiek lantzeko.

2022 urtean guztira LURZORUA egitarauaren 20 saio burutu ziren; udaberrian 11 eta udazken-neguan 9. Guztira Euskadiko **11 ikastetxeetako 500 ikasle inguruk** parte hartu zuten.

Programa Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Amorebieta-Etxanoko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan dago.



Erakusketara eskola taldeen bisitaldiak

Lurzorua egitarauan parte hartzen duten taldeez gain, 6 eskola taldeek **Jauregibarriako erakusketa bisitatzeko aukera izan zuten** Kontseiluko teknikari baten eskutik. Guztira 150 ikasle inguruk Ekoizpen eta elikadura Ekologikoaren berezitasunak ezagutu zituzten.


Ate irekiak-kontsumitzaileei zuzendutako bisitak

Ikasturte hasieran, irailean, kontsumoa, elikadura eta nekazaritza sektorearekin lotutako talde eta erakunde desberdinei zuzendutako eskeintza zabaldu zen. Euskadiko Ekoizpen Ekologikoaren eta elikagai ekologikoen ezagutza eta informazioa sustatzeko eta aldi berean, produktu horiek ekoizteko, transformatzeko eta lantzeko prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiz. Eskeintza honetan **ibilaldi gidatuak** eta **hitzaldien** aukera eskeini zen. Guztira bost taldek parte hartu zuten.

Aramotz mendi lasterketan babesletza

Ekimen hau FOPE egitasmoan A7.10 lan ildoaren barruan kokatuta dago.

Kontseilua urriaren 31n, Amorebieta-Etxanoko Aramotz Mendi Taldeak, antolatutako lasterketan babesle izan zen. Parte hartutako kirolari guztiei elikagai ekologikoz osatutako poltsa bat eman zitzaien. Horrez gain, lasterketarako azpiegitura (karpa eta banderolak) eskaini zitzaizkien.



4.2.4. Hitzaldi eta mahai teknikoak

Hitzaldiak eta mahai teknikoak FOPE egitasmoan A7.8 lan ildoan jasota daude.

SEAE Kongresuan Ekolurraren aurkezpena

Mallorcan, apirilaren 27tik 29ra, elikadura-subiranotasunetik larrialdi klimatikoa kudeatzeko egin daitekeen ahaleginaz eta ekimenez mintzatzeko Nekazaritza Ekologikoaren Espainiako Elkarteak, SEAEk, XIV. kongresua egin zuen.

Saioan 30 hitzaldi, erakusketa eta mahai-inguru sortu ziren. Esparru horretan sartu zen Arantza Eguskiza Kontseiluko lehendakariak aurkeztu zuen EKOLURRA bereizgarria. Aurkezpenean, Kontseiluak euskal merkatu ekologikoan sortutako bereizgarria aurkeztu zuen, lehen aldiz aurkeztu zen Ekolurra Euskaditik kanpo.



Larrialdi klimatiko hau kudeatzeko moduetariko bat lurraldeari, bertako baldintza klimatiko, agronomiko eta kulturaleri egokitutako elikagaiak ekoiztea da. Eta zentzu horretan, Ekolurra haize freskoa izan da. Berria, Espainiako Estatuan ez dagoelako antzeko ezaugarriarik duen bereizgarririk.

Nekazaritza ekologikoa etorkizuneko apustu gisa I+G Nekazaritza jardunaldietan

La Ser Gasteizek antolatutako I+G Agro-ren edizioan parte hartu zuen Kontseiluak. Jardunaldian lurraldeko nekazaritza sektorea ikusarazteko beharra eta belaunaldiak bermatzeko bide gisa teknologiaren aldeko apustua egin beharra nabarmendu ziren. Xabier Lejarzegik, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko zuzendariak, Txema Martinez de Antoñanak (Natuaraba) eta Oscar López de la Calle, Bionekazaritza, jardunaldiko mahai inguruan parte hartu zuten eta Nekazaritza ekologikoa eredu aldaketaren apustu gisa aurkeztu zen.

Oscar Lopez de la Callek nekazaritza ekologikoak lur emankorraren kontserbazioan duen garrantzia aipatu zuen eta agroekologia mundu mailako ingurumen, gizarte eta ekonomia arazoei aurre egiteko tresna gisa aurkeztu zuen: “Ingurumena zainduz eta birsortuz klima-aldaketa arintzeko tresna da”.

Bestalde, Txema Martinez de Antoñanak sektore ekologikoan lanean ari diren hainbat teknologia azaldu zituen ekoizpen ekologikoaren maneia zientzian oinarrituta dagoela eta etengabe eguneroko erronkei irtenbidea bilatzen dabilera erakutsiz.

Saioak guztira 850.008 konexio izan zituen webgune, mugikor zein aplikazio bitartez. Honez gain, La Ser Vitoriaren sare sozialetatik ere zabalkundea izan zuen.

Ponencia I+D Agro – La SER



"BASQUE ENVIRONMENT OCEAN WEEK" jardunaldia

Ekainaren 8an Xabier Lejarzegik, Kontseiluko zuzendariak, ozeanoen nazioarteko egunarekin bat eginez, Bilboko Itsas Museoan antolatutako "Planetaren Jardunaldietan" parte hartu zuen hizlari gisa.

Jardunaldi horietan, giza jardueraren ondorioz gainditu diren edo gaur egun arriskuan dauden planeta-mugak azertu ziren, baita jarduera horrek dinamika naturaletan dituen ondorioak ere.

Xabier Lejarzegik nekazaritza ekologikoak ingurumenean duen garrantziaz eta egiten duen ekarpenaz jardun zuen; “Nekazaritza-lurra baliabide natural ikusezin eta ahaztuenetako bat da, eta gogoratu behar dugu epe luzera emankor mantendu behar dugun baliabide mugatua dela. Baserritarren belaunaldiengandik jasotako ondarea da, eta etorkizuneko belaunaldiei bizitzeko habitat gisa eta jateko pasatzen diegun lekukoa da. Eredu ekologikoarentzat funtsezkoa da lurreko bizitzari eustea eta bertan bizi diren mikroorganismoekin batera lurra lantzea. Materia organikoa funtsezkoa da landareek hazteko eta orekatzeko mineralak izan ditzaten”.



ECOWINE 2022 Simposioan

Ekainaren 1etik 3ra Laguardian, Neiker-ek antolatutako Ecowine simposioan parte hartu zuen Kontseiluak. Topaketaren helburuetariko bat ardoaren ekoizpen ekologikoari buruzko jakintza zientifikoak partekatzea izan zen, baita klima-aldaketaren gain lantzen dabilten neurrien inguruan lanketa egitea ere. Xabier Lejarzegik, saioetariko batean moderatzaile jardun zuen.

Ardoaren sektorea garrantzitsua da Europako Itun Berdearen esparruan eman behar den eraldaketa ekologikoaren barruan. Estrategia europearrak 2030erako nekazal azalera guztiaren %25a ekologikoa izan behar duela zehazten baitu.

Sinposio hau baliagarria izan zen mahasti ekologikoek duten onurei balioa emateko, bai ekoizpen-inguruneke naturaren osasunaren zaintzan, bai ardoaren kalitatean eta zaporean.

ECOWINE sinposioan kontseilutik egindako ardo ekologikoaren onuren eskuorriak banatu ziren eta elikagai ekologiko desberdinen erakusketa jarri zen.



Duina aurkezpen ekitaldia kontseiluaren egoitzan

Ikerketa ekimenei babesa FOPE egitasmoan A1.9 lan ildoaren baitan aurkitze da.

BIOLUR elkarteak, DUINA, baratza ekologikoen bideragarritasun lanketa kolektiboaren ondorioak aurkeztu zituen Kontseiluaren egoitzan irailaren 27an. Ikerketa proiektua Biolur elkarteak UPV/EHUrekin batera bideratu zuen eta laguntzaile izan zituen Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

Ikerketaren ondorioak ezagutzera emateko “Ekoizpen Duina, kontsumo herrikoia” lelopean kanpaina abiatu zuten eta kanpainaren lehen urratsa egoitzan eman zuten. Duina proiektua 2020 urteko ekainaren 18an aurkeztu zen.

Bi urtez iraun duen proiektuan, Gipuzkoako eta Bizkaiko 11 baratza proiektuen azterketa egin da. Bertan, laboreen ekoizpen kostuak, soldatak, lan orduak, prezio duinak, eta orohar nekazal proiektuen duintasun ekonomiko eta sozialerako hainbat datutan sakondu da.

Kanpainaren helburua ikerketaren emaitza orokorrak partekatzea izan da. Datuen ondorioak entzutera 40 pertsona inguru gerturatu ziren, BIOLUR elkarteak datuak eman ostean solasaldi bat zabaldu zen, eta bertan, sektoreak ondorio hauen aurrean hartu beharreko jarrera eta irtenbide desberdinak mahai-gaineratu ziren. Aurkezpenari amaiera emateko, kontseiluak Amillenak prestatutako mokadutsoa prestatu zuen.



“Abeltzaintza ekologikoa, dena hobetzeko” laburmetraiaren aurkezpena

Dagoeneko dauden ekimenei babesla FOPE egitasmoan A7.10 lan ildoaren baitan dago.

Biolur elkarteak eta Elikaguneak elkarlanean topaketa ekologikoa antolatu zuten Kontseiluaren laguntzarekin. Urriaren 14an, Azpeitiko Elikagunea Azoka Plazan antolatutako topaketan bidebategi abeltzaintza ekologikoari buruzko bideoaren estreinaldia egin zen. Eskualdeko edari ekologikoen postuak, edari eta pintxo dastaketa eta haurrentzako eskulanak ere izan ziren bertan.

Kontseiluak topaketaren kartelaren sorkuntzan eta dastatzeko eman ziren edari ekologikoen babesletzan lagundu zuen. Horrez gain, kontseilua laburmetraiaren sorkuntzan babesle nagusienetarikoa ere izan da.



4.2.5. Erakusketa ibiltaria

Komunikazio kanpainak FOPE egitasmoaren barruan A7.11 lan ildoaren baitan daude.

“Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” kanpainaren baitan lelo hori duen erakusketa mugitzen da. Erakusketa hainbat herritan ibili da, bai aire zabaleko formatuan, itsas edukiontzi batetan, bai areto barruko formatuan.

Erakusketa Kontseiluak egiten duen Euskadiko produktu ekologikoen sustapenaren barruan kokatzen da eta haren helburua jendarteari ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegi osoa helaraztea da; eskaintzen dituen abantailak eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak azaltzea. Hortaz, ingurumenarekin nolabaiteko kezka duen edo tokiko elikagai ekologikoekiko interesa duen edonori informazio ulergarria helaraztea da xede nagusia.

Erakusketak, 14 panel argitsu eta 3 minutuko bideo osagarria du. Aurten bi panel berri egin dira erakusketa osatzeko bata ardoaren berezitasunen ingurukoa eta bestea olioarena.

Paneletan ekoizpen ekologikoari buruzko hainbat datu eta informazio zabalduz dira; elikagai ekologikoek dituzten onurak eta eredia ekologikoak abeltzaintzan dituen onurak ere; izan ere, ez dago animalien ongizate maila altuagoa duen abeltzaintza sistemarik, eta berori da karbono aztarna txikiena uzten duen ekoizpen sistema.

Bideoan, hainbat ekoizle ekologikoek bere lana eta esperientzia kontatzen dute eta produktu bakoitzaren atzean dagoen pertsona eta lana islatzen da. Urtean zehar leku hauetan egon da erakusketa: guztira 140 egunetan egon da ikusgai.

2022/01/19	Derioko Nekazal Eskola (Derio)
2022/02/07	Zelaieta Kultur Etxea (Amorebieta Etxano)
2022/03/18	BioAraba (Vitoria Gasteiz)
2022/04/01	Fraisoro Nekazaritza Eskola (Zizurkil)
2022/05/02	Berdeago Energy (Durango)
2022/06/01	Laguardia – Jornadas Ecowine
2022/06/06	Durango – Ezkurdi plazan Itsas edukiontzia
2022/10/03	Iparralde Gizarte Etxea (Vitoria Gasteiz)
2022/10/14	Zabalgana Gizarte Etxea (Vitoria Gasteiz)
2022/10/25	Micaela Portilla Kultur Etxea (Alegria Dulantzi)



4.2.6. Merchandising

Zuzeneko salmentarako euskarriak ekoiztu dira: heldulekua eta heldulekurik gabeko paperezko poltsak, eta poltsa konpostagarriak.

Bestalde, mahaietan jartzeko mantel berriak eta azoketako postuan jartzeko amantalak diseinatu dira, azoketan eta merkatuetan irudi ekologikoa bateratzeko asmoz

Horrez gain, beste elementu batzuk berritu dira Euskadiko kontsumitzaileen artean banatzeko: kamisetak kolore berrietan eta oihalezko poltsak.



4.3. EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN

Bereizgarri berriaren sorrera jasota dago FOPE egitasmoko A7.3 lan ildoan.

Ekolurra aurkezpen kafea

EKOLURRA BEREIZGARRIAREN informazioa eragileen artean zabaltzeko eta eskaera betetzerakoan sortu daitezkeen zalantzak eta bestelakoak argitzen laguntzeko uztailaren 13an topaketa antolatu zen Kontseiluko egoitzan.

Guztira 10 eragile gerturatu ziren.



4.4. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.

4.4.1. Hitzaldiak eta formakuntza

Hitzaldiak eta formakuntza FOPE 1.4 lan ildoaren barruan jasota daude.

Erlezaintza ikastaroa Urriak 13. Arabako mendialdean. Antoñana

Bionekazaritza, Arabako ekoizle ekologikoen elkarteak, erlezaintza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatu zuen Ataurin. Esti Martinez, Kontseiluko teknikariak, nekazaritza ekologikoari buruzko Europako araudiaren xehetasunak eta erlezaintza ekologikoaren ziurtapenaren beharrak eta eskakizunak partekatu zituen bertaratutakoekin. 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen ekoizpen ekologikoaren araudi berriaren aldaketa nagusiak aurkeztu zituen.

Idiazabal jatorri izenduraren barnean dauden artzainekin jardunaldia legution

Urriak 21ean, Estibaliz Martinez, Kontseiluko teknikariak, ekologikora aldatzeko eman behar diren urrats eta betebeharrak administratiboak azaldu zituen. Diagnostiko batean kontuan izan behar diren betebeharrak aipatu zituen. Jardunaldia Legutioko Bostibaieta baserrian izan zen eta guztira 20 artzain inguru gerturatu ziren.

Sagar ekoizle eta sagardogileei hitzaldia

Kontseiluko zuzendariak, Xabier Lejarzegik, sagastiak ekologikora aldatzeko eman behar diren pausu eta betebeharrak administratiboaren inguruan hitz egin zuen azaroak 4ean Usurbilen Alkartasuna Kooperatibak antolatu zuen ikastaroan. Parte hartzea altua izan zen.

Baratzezaintza ikastaro intentsiboa

Azaroaren 8an, Kontseiluko zuzendariak, Xabier Lejarzegik, HAZIK urteko programazioaren barnean eskeintzen duen formakuntzaren barnean, barazkigintza ekologikoaren inguruko on- line ikastararoa eman zuen. Batez ere, barazkigile konbentzionalei zuzendutako ikastarora izan zen.

Artzain eskola

Urriaren, Artzain Eskolako programaketaren barnean, ekoizpen ekologikoaren inguruko bi saio burutu ziren. Urriak 24ean, Kontseiluko zuzendaria den, Xabier Lejarzegi Gomiztegi baserrian egon zen Euskadiko Ekoizpen Ekologikoaren inguruko informazioa ematen. Urriak 25ean Artzain Eskolako ikasle ohia den Aitor Urienen baserrira bisita egin zen. Bertan Aitorren esperientzia eta Kontseiluko teknikaria den Estibalizen azalpenak jaso zituzten.

4.4.2. Konbertsio enbutua sortu

Sektorea handitzeko eta alta berriak bultzatzeko FOPE egitasmoan jasota dago A1 ildoaren barruan.

Webgunean atal berri bat egokitu zen ekoizpen ekologikoan ziurtatu nahi diren profesionali zuzendua. Atal honetan, ekologikoan ziurtatzeko zergatiak aipatzen dira bai eta ziurtatzearen onurak ere. Horrez gain, zigilua lortzeko eman beharreko urratsak zerrendatzen dira eta ziurtatzeko urratsa eman aurretik sortu daitezkeen zalantzak argitzeko kontsulta egiteko gunea dago.

Bestalde, ekologikoan ziurtatzeko eskaera egin daiteke zuzenean eta bete beharreko imprimakiak eta jakin beharrekoak eskuratu. Azkenik, ekologikoan ziurtatzeko bete beharreko baldintzak betetzen diren jakiteko diagnostiko bat eskatzeko eskaera orria diseinatu da.



4.5. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.

4.5.1. EKOEUS azoka profesionalak

Azoka profesionalak FOPE egitasmoan A7.2 lan ildoan jasota daude.

BioAraba

Martxoaren 18tik 20ra Gasteizen, Iradier Arenan, BIOARABA VII. edizioan Euskadiko gunea antolatu zen. Produktu ekologikoen, bizitza osasuntsuaren eta Kontsumo arduratsuaren azokan 8 eragileek eta Kontseilua egon ziren.

Euskadi guneko salmenta sustatzeko EKOEUSKADI gunean zeuden ekoizleen produktuekin osatutako lau saski zozketatu ziren, bi larunbatean eta beste bi igandean. Zozketan Euskadiko gunean erosketa egitean eskuratzen zen bonoarekin parte hartzen zen. Bestalde, informazioa jaso eta gurutzegrama egin zutenei ipuina edo jutezko poltsa oparitu zitzaizen.

Informazio puntuaz gain Iradier Arenaren sarreran “Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da!” erakusketa ibiltaria jarri ziren.



Berdeago Nature

Maiatzaren 14 eta 15ean Durangon, Landako gunean, ospatu zen Berdeago Nature Kontsumo arduratsuaren azokan ekoizpen ekologikoaren informazio puntua jarri zen.

24 m² ko eremua erreserbatu zen eta bertan Durangoko Merkatuko ekoizle ekologikoei lekua utzi zitzaien, bere produktua aurkeztu, informazioa eman eta salmenta tokiak ezagutarazteko.

Kontseiluaren eta Ekoizpen Ekologikoaren informazioa emateaz gain, bi egunetan etiketa ekologikoak irakurtzeko tailerra eman zen goizez eta arratsaldez.

Azkenik, Berdeago Energi azokan erakusketa ibiltaria jarri genuen deskantsu eta taberna puntuan elikagai ekologikoen informazioa helaraziz.



Bioterra

Ekainaren 3tik 5era Irungo Ficoban BIOTERRA 2022, Produktu ekologikoen, bio eraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren Euskadiko azoka antolatu zen.

Irungo Bioterra 19 urtez kantauri isurialdeko elikadura ekologikoko profesionalentzako funtsezko topagunea izan da. Ekoizle, fabrikatzaile, elaboratzaile eta banatzaileen hiru eguneko topagunea elkar ezagutzea eta merkataritza-harremanak hastea helburu duena. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua Bioterra azokaren batzorde antolatzaileko kidea da.



Kontseiluak 66m² erreserbatu zituen EKOEUS eremu bezala, Kontseiluak 27m² hartu zituen eta gainerako espazioa parte hartu zuten 5 eragileren artean banatu zen. Kontseiluaren gunean alde batetik, informazio puntua, bestetik bideoa emanaldia eta azkenik, etiketatu tailerra egiteko tokia izan ziren.

Informazio gunean “Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” esposizioa eta kontseiluaren webguneko eragileen bilatzailea ezagutzera eman ziren. Harrera ona izan zuen, bai bisitari partikularrak eta bai dendariak bere eskualdean dituzten ekoizleak eta ekoizten diren elikagaiak jakiteko aukera izan zutelako.

Etiketatu ekologikoaren tailerrak larunbatean eta igandean goizez eta arratsaldez egin ziren, guztira 4 tailer. Batzbeste 8-10 pertsona gerturatu ziren saio bakoitzean.

Horrez gain, azokak iraun zuen hiru egunetan Euskadiko eragileen produktuarekin Kontseiluak osatutako 6 otzara zozketatu ziren. 2 otzara egun bakoitzean.

Txikientzako antolatzen den landare tailerreko babeslea izan zen ere.

Antolatzaileen arabera, 2022an 10.000 pertsona inguruk bisitatu zuten Bioterra eta 116 enpresek parte hartu zuten. 50 jarduera baino gehiago izan ziren azokak iraun zuen hiru egunetan.



Gustoko

Martxoaren 4, 5 eta 6an Gustoko azoka antolatu zen BEC-en. Elikagai ekologikoak lehenengo kale printzipalean izan ziren eta Kontseiluak ekoizpen ekologikoen inguruko informazioa eta Kontseiluaren zerbitzuen informazioa eman zuen.

Guztira, 7 eragilek hartu zuten parte.



SS Gastronomika

HAZik urtero SS Gastronomikan Basque Wine egitarauaren barruan dastaketak egiteko hartzen duen azalera Kontseiluari eskeini zion Euskadiko Edari Ekologikoak ezagutzera emateko. Parte hartutako edariek Basque Winek dituzten berezitasunak izan behar zituen parte hartzeko.

Dastaketak Mikel Garaizabalen eskutik izan ziren eta nahi izan zuten eragileei bere produktua aurkezteko aukera luzatu zitzaizen Kontseilutik.

Kontseiluak informazio puntua jarri du jendeari arreta emateko; kontseiluaren eta ekoizle ekologikoen informazioa emateko eta baita ere bertan zeuden produktuetan interesatuta egon direnen datuak jasotzeko.

Eskaintza Kontseilutik zabaldu zen eta guztira 19 eragilek parte hartu dute. Horien artean edariek 14 eragilek eta maridatzeko bestelako elikagaiekin beste 5.

Balorazio oso positiboa izan zuen. Azokako oihartzun handia izan zuen hedabide eta sareetan. Eta azokara gerturatu ziren goi mailako sukaldari eta kargu politikariek elikagai ekologikoen zabalkundea egin zuten.

Bestalde, dastaketetan parte hartzen animatu ziren eragileen produktuak oso harrera ona izan zuen eta profesional askoren interesa piztu zuten.

Orokorrean, goi mailako produktuak aurkezten diren azoka profesionala denez bertan egoteko aukera izatea bultzada handia izan da Euskadiko Elikagai ekologikoak duten kalitatea eta dagoen eskaintza zabala erakusteko.



BioCultura Madrid

BioCultura Madrid azaroaren 3tik 6ra IFEMAn ospatu zen. Vida Sana elkarteak antolatutako nekazaritza ekologikoaren eta kontsumo arduratsuaren azoka egokia da mota guztietako merkataritza- eta dibulgazio-jarduerak egiteko. Estatu mailan Euskadiko elikagai ekologikoak ezagutarazteko erakusleho bikaina da.

BioCultura azokek mende laurden baino gehiagoko tradizioa dute elikadura ekologikoa sustatzen. Aurten, Kontseiluaren eremuan 3 eragilek parte hartu zuten, eta guztira 18 m²ko stand-aren erreserba egin zen. Guztira 8 saski zozkatu ziren lau egunetan EkoEuskadin produktua erosi zuten pertsonen artean.



4.5.2. EKOAZOKA txikiak.

Azoka txikiak eta bestelako azokak FOPE egitasmoan A/7.1 Lan ildoaren baitan kokatzen dira.

Udako azoka ekologikoak

Udako azokak duela hogeit hamar urte baino gehiagotik antolatzen dira EAEn. Tokiko ekoizle ekologikoentzat salmentarako eta kontsumitzaileekin duten harreman zuzena sendotzeko erakusleihoa dira. Euskadiko ekoizle ekologikoen hainbat elkartek antolatzen dituzte eta plazetan zein kalean egiten dira. Azoka hauek elkarteekin batera kudeatzen dira, elkarte bakoitzak azoka jakin batzuk antolatzen ditu eta Kontseilua azoken komunikazio kanpaina kudeatzeaz arduratzen da.

2022an, 15 azoka antolatu dira. Azokak, Elorrio, Zigoitia, Zumaia, Donostia, Errenteria, Algorta, Zerain, Aretxabaleta, Mungia, Gasteiz, Eibar, Durango, Leintza-Gatzaga eta Amasa-Villabonan egin dira.

Aurreko urteko komunikazio plangintzak izan zuen balorazio onaren ondorioz aurten ere Komunikazio plangintzan tokikotasunaren estrategia mantentzea erabaki da; tokiko hedabideetan azoka iragartzearena.

Bi kanpaina diseinatu dira: orokorra azoka guztietarako eta azoka bakoitzerako pertsonalizatua. Kanpaina orokorraren helburua webgunean diseinatutako landing page-ra kontsumitzailea bideratzea izan da. Kanpaina Facebook Ads-en zabaldu da, bai eta, Berria eta Noticias de Álava-n.

Bestalde, azoka bakoitzerako diseinatutako kanpainak beste helburu bat izan du, azoka ekologikoen ezagutzaren hedapena. Bigarren kanpaina hori, sareetan mugitu da batik batik.

Horrez gain, prentsa-oharrak bidali dira tokian tokiko hedabideetara azokak iragarri eta komunikatzeko. Gainera, gazteak azoketara erakartzeko asmoz Udako Azoken irudia berriro egin da, kartelaren diseinua berriro eta sareetako irudiarekin bateratuz.

Bide batez, Kontseiluak identifikazio- eta sustapen-material komuna jarri zuen eskuragarri azoka guztietarako, azoka multzo osoa unitate bat bezala aurkezteko helburuarekin. "Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da" eskuorriak eta ekoizpen ekologikoaren informazio orokorra ematen duen triptikoa, bai eta honi lotutako erakusketa.

Beste urte batzuetan bezala, azokarekin batera dastaketak edo showcooking-ak antolatu ziren. Zumaian eta Errenterian bertso katak antolatu ziren azokako elikagaiak aipatzen eta dastatzen ziren bitartean. Eibar eta Leintz Gatzagan ECO showcooking-ak antolatu ziren eta Zerainen "EKO gailera-tailerra" antolatu zen elikadura ekologikoaren sentzibilizazio hitzaldi baten ondoren. Gasteizko azoka ekologikoari dagokionez, Ekotalo tailerra antolatu zen sasoiko elikagaiekin batera eta Museo del Órgano jatetxean Ekopintxoaren dastaketa antolatu zen. Mungian azkenik, sasoiko elikagaien dastaketa antolatu zen.


Udako azoken barruan eginiko ekintzekin amaitzeko, Landing Page bat diseinatu zen online publizitatearen bidez gure webgunera sartzen ziren kontsumitzaile guztiei harrera emateko. Bertan, 5€-ko 600 erosketabonu eskuragarri jarri genituen.

Bi kanpainak oso emaitza onak izan dituzte, kanpaina bien artean 1.126.913 ikusarazte lortu ziren, 807.329 pertsonengana heltzea lortu zen eta horietatik 2398 pertsonak amaitu zuten webgunean sortutako Landing Page-an.





UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK dena hobetzeko!



Beste azoka eta kaleko merkatu batzuk

- **Elorrioko Ferixa Nagusikoa**

Elorrixoko Ferixa Nagusiko azokan, Durangaldeko ekoizleek itsas-kontenedorea erabili zuten postu bakarra antolatuz eta Durangaldeko ekoizpen ekologikoaren eskaintza bistaratuz. Honez gain, ekoizpen ekologikoaren erakusketa kokatu zuten.

- **Donostia Auzo Osasuntsuaren Eguna**

Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkartek Donostiako Loiolako Erribera auzoan Auzo Osasuntsuaren Eguna ospatzeko azoka antolatu zuen. Azokan “Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” erakusketa ibiltaria jarri zen eta elikagai ekologikoen argudio orriak ere banatu ziren. “Ekologikoa dena Hobetzeko” kamiseta batzuk ere zozketatu ziren erosleen artean.

- **Arabako Kanpuseko azoka**

EHUko Arabako Campusean antolatzen duten Azoka Agroekologikoan parte hartu zuen kontseiluak informazio puntuarekin aurten ere. Gerturatu ziren taldeei Ekoizpen Ekologikoaren eta Elikagai ekologikoen etiketatzearen inguruko informazioa eman zitzaien.


4.5.3. Merkaturatze sarea

Merkaturatze sarearen proiektua Fope egitasmoan A6.1. lan ildoaren baitan kokatzen da.

2021ean sortu zen Euskadiko elikagai ekologikoak merkaturatzeko plataforma egokitzen eta garatzen jarraitu da agertzen diren behar ezberdinei erantzuna emateko; txartelaren ordainketa sistema eta hileko fakturen sorrera, eskari jakin baten maiztasuna...

Merkaturatze Sarea plataforman ekoizleei zuzenean erosteko eskaintza zabala aurkitu daiteke. Erosketa bakarrean ekoizle desberdinen elikagaiak jasotzeko modu eroso, gardena eta eraginkorra da.

Urtea 8 merkatuen erabilera finkatzen eta egokitzeko aprobeztatu da, erraminta egokitu eta bere erabilera sektorean zabaltzeko ahal izateko.





4.5.4. Salmenta puntuen mapa

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak, Biolur elkarteak abian jarritako “Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoa” ekimenaren kide laguntzaile bezala, salmenta puntuen mapa sortu du.

Kontseiluak garatutako aplikazio baten bitartez DUINA proiektuan parte hartutako ekoizleek App-ean datuak erregistratu ahal izan dituzte, datuetariko bat salmenta puntuen lokalizazioa izan da. Salmenta puntuen informazioa jaso eta webguneko “non erosi” mapan islatu ditu horietako batzuk.

Helburua, Euskadin ekoizten diren elikagai ekologikoen salmenta-puntuak identifikatzea izan da, ekoizleak bistaratu eta elikagai ekologikoen eskuragarritasuna sustatzeko.



4.6. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU

Helburu hau eredu ekologikoaren ezagutza bultzatzearekin lotuta dago eta FOPE egitasmoan A7.11 lan ildoarekin bat egiten du.

Komunikabideekin harremana sendotzen hasi zen Kontseilua Ekolurra aurkezpenean eta aurten ere, Ekoizpen Ekologikoaren Nazioarteko Egunean, irailaren 23an, agerraldi horri eutsi zai.



Horrez gain, estatistikaren datuen argitalpenarekin ere Euskadiko ekoizpen ekologikoak ohiartzuna izan zuen hedabideetan.

berria

Elikagai ekologikoen kontsumoak ez du atzera egin

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza lurren %4,6 erabiltzen dira nekazaritza ekologikorako. Hiru 2030. urterako Europako nekazaritza lurren %25 ekologikoa izatea da.

Astekaria buletina
Jaso nabarmenduriko abiteko astekariaren, zati heldu ekologikoa.

Osoien Irakurriak
1. Artoak Maitatuko festa Paleoko Dorcasen

naiz

EAEko nekazaritza ekologikoa gorantz doa eta lurren %4,6 hartzen du

Nekazaritza ekologikoen errotak 198 herri zen: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, lurren azaleran %16ko hazkundea izan zuten. Nekazaritza ekologikoen goranzko joera nabarmendu du Lekuak Nekazaritza, Arantza eta Elikadura Politikako Sailak.

EL CORREO

La agricultura ecológica gana terreno en Euskadi

Según datos del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi (Ekolurra), en 2021 la superficie dedicada al cultivo ecológico aumentó un 16% con respecto al ejercicio anterior

Nekazaritza ekologikoa gorantz jarraitzen du Euskadin, baina oraindik lana dago egiteko Europako Itun Berdearen helburuak betetzeko, hala nola 2030ean nekazaritza-lur guztien laurden bat izatea.

Sector primario

La producción ecológica sube en Álava a 209 operadores y 4.664 hectáreas

LA TENDENCIA ALICISTA NO SE REFLEJA EN EL SECTOR CEREALISTA, QUE NECESITA UN CAMBIO DE MODELO PROGRESIVO, SEGÚN EKOLURRA

REBECCA RUIZ DE GAINA | 13.05.2022 | 00:29

onda vasca

Noticias Reportajes Podcasts Programación

4 de septiembre del 2022
Dada Vaca con José Manuel...

Anuncio CITEIO

16 HELIX ORO...
100% HELIX ORO...
Descubre las opciones

Por **agenciadenoticias.es** - 28 septiembre, 2022

Orria entzun · Inprimatu

Sector primario

La producción ecológica sube en Álava a 209 operadores y 4.664 hectáreas

LA TENDENCIA ALICISTA NO SE REFLEJA EN EL SECTOR CEREALISTA, QUE NECESITA UN CAMBIO DE MODELO PROGRESIVO, SEGÚN EKOLURRA

REBECCA RUIZ DE GAINA | 13.05.2022 | 00:29

La agricultura ecológica va a más, entre otras razones porque parte de cifras más bajas que la convencional. En Álava sube a 209 operadores y 4.664 hectáreas de terreno, frente a los 187 operadores y 4.064 hectáreas del año 2020. Esta tendencia al alza marca una senda favorable que, sin embargo, pinta insuficiente para alcanzar los retos que se marca la UE del 25% de producción ecológica para 2030.

LAV

Euskadi aumenta su producción ecológica, pero a está lejos de los objetivos marcados

El 23 de septiembre se celebra el Día Internacional de la Agricultura Ecológica de la Unión Eur...

Arantxa Eguzkiza: "Bezeroen eta lurraren osasuna ikaragarri errespetatzen dudalako ari naiz ekologikoan"

ANE ALBISU | ETB MEDIA

Publikatuta: 2022/01/24 11:39 (UTC-1) Azken eguneratzea: 2022/01/24 12:41 (UTC-1)

Europako zigiluak ekologikoa dela ziurtatzen du eta "Ekolurra" zigiluak ekologikoaz gain, bertakoa dela egiaztatzen du. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu duen zigilua da eta bezeroentzat argibide garrantzitsuak eman dizkigu Arantxa Eguzkizak.

Sector primario

La tendencia al alza se constata también en el sector ganadero

NUÉVAS EXPLOTACIONES DE VACUNO, OVINO, PORCINO, CAPRINO Y AVES DE CORRAL SE DAN DE ALTA EN ECOLÓGICO

REBECCA RUIZ DE GAINA | 13.05.2022 | 00:29

GasteizBeri

MAIATZ 28 DE FEBRERO 2022 12:23 VITORIA-GASTEIZ

ÚLTIMAS NOTICIAS El Ayuntamiento de Vitoria ecultia los gastos de su presencia en Fuar 2022

FORNADA VITORIA-GASTEIZ ALAVA EUSKADI AGENDA PODCASTS MORE AGENDA VITORIA-GASTEIZ

Noticias de Euskadi

Solo el 5% de la superficie labrada en Euskadi es ecológica, lejos del 25% marcado por Europa

El 92% de los profesionales que han optado por la agricultura ecológica solo trabaja en ecológico.

Por: Redacción | 04 de septiembre de 2022

El 92% de los profesionales que han optado por la agricultura ecológica solo trabaja en ecológico.

Noticias relacionadas

Un estudio de la UPV niega que los dietas sin gluten sean más saludables

34:52 18:59

vez adquiere más valor contar con un producto que mediante técnicas de producción respetuosas con la naturaleza consigue ser un aliado en la conservación de nuestra tierra cultivable fértil y en mitigar los impactos climáticos contribuyendo a generar sumideros de carbono en nuestras tierras", aboga el consejo de agricultura y alimentación ecológica de Euskadi.

Si hay un sector dentro del ámbito primario que ha dado últimamente muchas hectáreas a la ganadería ecológica, ese es el vacuno de carne. Son explotaciones que manejan muchas hectáreas de terreno y que, al mismo tiempo, viven un momento de incertidumbre ante el continuo cuestionamiento sobre los beneficios o perjuicios de consumir tanta carne; de ahí que para los ganaderos sea importante que se reconozca ese plus de calidad que aporta su carne ecológica. De 2020 a 2021 se han sumado dos nuevas ganaderías, pasando de trece a quince. "De leche no hay ninguna, hay explotaciones muy potentes, pero no en ecológico", apunta el director de Ekolurra, Xabier Lejarzezi.

Vaca de la ganadería Beldasle en la granja. Foto: Pilar Barco

hamaika

11Gaur Elkarrizketak Sakonean

09 MAY 2022

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza ekologikoa goranzko joerari eusten dio

Emakume [1]ek Elbako bi dendetan jasoandiko tratu diskriminatzailea salatuko du

Sindikatuak eta Martxoak 3

Check Point Endpoint Security

euskadi.eus

15 de julio de 2022

La agricultura ecológica gana terreno en Euskadi



Según datos del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi (Ekolurra), en 2021 la superficie dedicada al cultivo ecológico ha aumentado un 16%, pasando de 6.789 hectáreas a 7.905

"En este contexto, el centro tecnológico NEIKER ha celebrado hoy la primera visita anual a sus ensayos experimentales de cultivos ecológicos para presentar sus últimos avances

"Durante la visita a las parcelas del centro en Arkaute (Araba) se han presentado los ensayos de nuevas variedades de remolacha, calabaza, maíz, soja edamame y trigo para producción de harina ecológica

Según la Unión Europea, para lograr una producción de alimentos más saludable y respetuosa con el medioambiente de cara a futuro, en 2030 el 25% de los cultivos deberán ser ecológicos en Europa. En el caso de Euskadi, gracias a la demanda creciente de los consumidores y al esfuerzo de productores y de las instituciones, la producción ecológica va sumando hectáreas de tierra año tras año. Así lo confirman los últimos datos del Consejo de Agricultura y Alimentación

Bestalde, Udako Azoka Ekologikoen egitasmoarekin ere Elkarte antolatzaileekin batera Euskadiko Elikagai Ekologikoen oihartzuna lortu zen hedabideetan, batez ere tokiko hedabideetan:



5. ERREGISTRO KONTROL IKUSKARITZA ETA ZIURTAPEN PLANA

Plan honen helburua erabiltzaileei eta kontsumitzaileei Nekazaritza Ekoizpen Ekologikotik (edo Biologikotik edo Organikotik) ekoiztako eta identifikatutako produktuek EBko araudian ezarritako gutxieneko baldintzak eta baldintza ofizialak betetzen dituztela bermatzea da.

Nabarmentzekoa da Europa mailako araubide ekologiko berria 2022ko urtarriletik aurrera aplikatzen hasteko asmoz egindako lana. Kontrol lanak ohikoa baino hilabete bat beranduago hasi behar izan ziren erabili behar diren auditoretza dokumentu guztiak araudi berriari egokituta egoteko.

Estatuko NEren kontseiluak eta batzordeak osatutako INTERECO elkartean parte hartzen jarraitu da. Bai intsumoen ziurtagiriarekin, dibulgazio-jardunaldiekin lotutako gaiekin bai eta ziurtapenerako irizpideen koordinazioarekin ere.

Kontrol eta ziurtapenari dagokionez, 2022an ondorengo ekintzak egiten jarraitu da:

5.1 ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO KONTSULTEI ARRETA

Egunero jasotzen dira **telefonoz edo posta elektronikoz** dagoeneko erregistratuta dauden eragileen edo Araudiaren kontrol-sistema edo baldintza teknikoak ezagutu nahi dituzten pertsonen kontsultak. Batzuetan, kontsultek ondorengo azterketa bat eskatzen dute.

2022an, ziurtapen-prozesuan interesa erakutsi duten EAeko ekoizleen eta elaborazio-enpresen 90 informazio-eskaerari erantzun zaie.

5.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK

Aurten, aplikazio informatikoan mantentze-lan batzuk egin dira, espedienteen jarraipena eta kudeaketa egiteko eta operadore ekologikoen erregistroa mantentzeko.

5.3 KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA

2022an, Kontseiluko kalitate sistemaren EBko araudi berriaren egokitzapen lanak egin dira.

5.4 FORMAKUNTZA

2022 urtean berrezkuratu egin dira aurrez aurreko formakuntza saioak. Hain zuzen ere, Intereco jardunaldiak berriro gauzatu dira, oraingoan, Valentzian. Araudi berriaren araberako kontrolei buruzko prestakuntza ere jaso da.

5.5 INTERECOn PARTE HARTZEA

INTERECO Estatuko Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu guztiak biltzen dituen elkartea da. Irizpideak homogeneizatzeko eta araudi ekologikoa interpretatzeko lan garrantzitsua egiten du. Kontseiluen arteko barne-foro bat du, ziurtapen-irizpideak kontrastatzeko eta homogeneizatzeko aukera ematen duena, eta NEren Europa mailako ziurtatzaileak biltzen dituen EOCC erakundeko kide da. Gainera, kontrol-

teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu eta lehen aldiz komunikazio-teknikarien koordinazio-taldea sortu da.

Kontseiluak, bazkide gisa, elkarteak garatutako jardueren diseinuan eta antolaketan parte hartzen du. Kontseiluko zuzendari teknikoak jatetxe ekologikoen batzordean eta NEn erabil daitezkeen intsumoak ziurtatzeko batzordean ere parte hartzen du. Horrez gain, Iker Iglesias, Kontseiluko kidea, Interecoko zuzendaritza batzordeko kidea da 2019ko apirilean Murtziako bileran egindako hauteskundeetan hautatua izan zenetik.

5.6 KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK

5.6.1 Eragile ekologikoen erroldaren banaketa 2022ko abenduaren 31n

Eragileen errolda

2022an erroldak %1eko igoera izan du. Lurraldeka, hazkundera handiagoa izan da Araban. Hala ere, eragile gehien Gipuzkoan daude oraindik. Eta Bizkaiko datuei dagokienez, %-2ko jaitsiera izan da.

	2016 Δ	2017 Δ	2018 Δ	2019	2020	2021	2022
ARABA	147 %10	154 %5	168 %9	179 %6	187 %4	209 %12	219 %5
BIZKAIA	161 %9	175 %9	190 %9	208 %9	213 %2	218 %2	214 %-2
GIPUZKOA	206 %6	213 %3	227 %6	240 %8	258 %7,5	283 %10	285 %0,7
GUZTIRA	514 +%8	542 +%5	585 +%8	627 +%7	658 +%5	710 +%8	718 +%1

Eragile bakoitzaren jarduera ekonomiko nagusia kontuan hartuta, orientazioaren arabera banaketan Gipuzkoa nabarmentzen da gehien, inportazioko orientazioan ezik; Bizkaian inportazio eragile bat gehiago dago.

Talde handiena nekazal ekoizleena da %65,43, ondoren, eraldaketarena % 19,7.

	nekazal ekoizpena	abeltzaintza	eraldaketa	akuikultura	merkaturatzea	inportazioa	GUZTIRA
ARABA	141	20	45		13		219
BIZKAIA	131	26	32	0	21	4	214
GIPUZKOA	162	34	65		21	3	285
TOTAL	434	80	142	0	55	7	718

Eragileek izen-emandako jarduera guztietako datuak

Atal honetan, kontuan hartu behar da eragile batek ziurtatutako jarduera bat baino gehiago izan dezakeela. Arrazoi honegatik eragile kopurua ez da jarduera guztietan izen emandako eragile kopuruarekin bat etorriko.

Ikus daiteke aurreko urteetan ez bezala, lau jardueretan ziurtatutako eragileen kopuruak behera egin duela. Animalien ekoizpenean eta elaborazioan, aldiz, goranzko joera mantendu da.

Eragile gehienak baratzezaintzan aritzen dira, eta ondoren fruta zaintzan. Arauditegi berria indarrean sartzeak aukera eman du jarduera berri bat ziurtatzeko, gatz ekoizpena.

Abeltzaintzari dagokionez, haragitarako hegaztien eta behien hazkuntzan igoera izan da. Akuikultura jardueran ordea, ziurtatuta zegoen eragilea baja izan da.

(*)	2016 Δ	2017 Δ	2018 Δ	2019	2020	2021	2022
Landare ekoizpena	353 %7	365 %4	389 %6	422 %8	439 %4	479 %9	478 %-0,2
Animalia ekoizpena	80 %10	90 %13	94 %4	104 %10	118 %13	128 %8	138 %8
Akuikultura						1 %100	0
Elaborazioa	115 %6	142 %23	161 %13	169 %5	181 %7	197 %8	206 %4,5
Merkaturatzea	57 %27	60 %5	66 %10	72 %9	77 %7	83 %7	77 -%7
Inportazioa	6 %100	8 %33	14 %75	15 %7	17 %13	20 %17	16 -%20

Orientazio bakoitzean izan diren altak jarduera bakoitzaren arabera sailkatuta ikus ditzatzeko ondorengo taulan:

NEKAZAL EKOIZPENA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Larreen eta/edo belardien aprobetxamendua	5		4	9
Lugorria eta/edo ongarri berdea	2			2
Zereal aleen laborantza	25	1	1	27
Bazka eta proteaginosoen laborantza	5	4	3	12
Fruitu lehorren laborantza	1		2	3
Lekale aleen laborantza	2		9	11
Kontsumorako patata ekoizpena	1			1
Landare usaintsuen eta sendabelarren laborantza			1	1
Laborantza industrialak	9			9
Ernamuinen elaborazioa		1		1
Frutazaintza	11	19	84	114
Baratzezaintza	208	107	64	379
Olibondoaren laborantza	5		1	6
Gatz ekoizpena	1			1
Beste landare laborantza batzuk	1	1		2
Landare eta hazien ekoizpena	1		2	3
Basoko bilketa			1	1
Mahastizaintza	72	7	7	86
ABELTZAINZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Akuikultura		0		0
Erlezaintza	1	1	4	6
Haragitarako hegaztien hazkuntza			1	1
Arrautzatarako hegaztien hazkuntza	3	10	6	19

Barraskiloen hazkuntza		1			1
Haragitarako ahuntzen abeltzaintza			1		1
Esnetarako ahuntzen abeltzaintza			1		1
Haragitarako ardien abeltzaintza	1	2	11		14
Esnetarako ardien abeltzaintza		2	6		8
Haragitarako behien abeltzaintza	20	26	23		69
Esnetarako behien abeltzaintza		3	4		7
Zaldien abeltzaintza	6	2	1		9

Ekologikoan ziurtatutako nekazal lurren azalera.

Azalerak urteko %15eko erritmoan egin du gora, baina erritmoa pixka bat moteldu da aurreko urteekin alderatuta. Gipuzkoan izan da lurren azalareran igoera nabarmenena, %35ekoa abeltzain handiek izena eman dutelako. Gipuzkoako azalera larreetarako azalera nabarmentzen da gehien bat, eta, ondoren, fruta-arbolena. Lurraldeka ordea, Arabako azalera da garrantzitsuena, mahatsondoan, larreen eta estentsiboen laborantzari esker.

	2016 Δ	2017 Δ	2018 Δ	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ
Azalera (ha)	3.195 %7	4.244 %32	4466 %5	5661 %27	6789 %20	7905 %16	9104 %15
Araba	1.757 %8	2.670 %52	2735 %2	3245 %18	4046 %25	4664 %15	5213 %12
Bizkaia	785 %7	824 %5	883 %7	1191 %34	1417 %19	1621 %14	1699 %5
Gipuzkoa	653 %4	750 %15	848 %13	1225 %44	1326 %8	1618 %22	2192 %35

Azaleraren %74a larreei dagokie, larreen azalera nabarmentzen da probintzia guztietan. Larreen ondoren, mahastiak Araban, barazkiak eta fruta-arbolak Bizkaian. Gipuzkoan aldiz, fruta-arbolena da gailentzen den azalera.

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Ale zerealak	230,87	0	0,84	231,72
Ale lekaleak	60,38	0,28	2,79	63,45
Ortuariak	24,91	76,46	69,09	170,46
Tuberkuluak	25,74		0,18	27,56
Fruta-arbolak	35,39	70,79	309,40	415,58
Olibondoak	25,52	0	2,05	27,56
Mahastiak	1210,26	11,70	17,56	1239,51
Fruitu lehorrak	10,54	3	35,35	48,89
Baso eta basoko bilketa	12,5	0,56		13,07
Larreak, belardia, bazka eta proteaginosoak	3480,95	1532,69	1751,94	6765,58
Lugorri eta ongarrri berdea	56,17	3,47	2,53	62,17
Haziak eta haztegiak	0,06	0,14	0,4	0,60
Laborantza industrialak	12,5	0,56	0	13,07
GUZTIRA	5213,38	1699,09	2192,13	9104,59

Euskadin nekazal lurren ia %5a ekologikoan ziurtatuta dago.

Orientazioka begiratzuz gero aldiz, ikus daiteke orientazio batzuetan ekologikoan ziurtatutako lurren ehuneko handiagoa dela; fruitu lehorretan (azaleraren %22,63), fruta-arboletan (%21,05) eta ortuarietan (%19,20).

Europako Itun Berdearen erronkaren arabera, 2030ean lurren %25a ekologikoa izan behar da.

ORIENTAZIOA	EKO Ha GUZTIRA Euskadin	Euskadiko Nekazal lurren Ha S.A.U	Ekologikoan ziurtatutako lurren %koa
Ale zerealak	231,72	43.331	%0,53
Ale lekaleak	63,45	1.679	%3,77
Ortuariak	170,46	888	%19,20
Tuberkuluak	27,56	1.608	%1,71
Fruta-arbolak	415,58	1.974	%21,05
Olibondoak	27,56	196	%14,06
Mahastiak	1.239,51	14.612	%8,48
Fruitu lehorrak	48,89	216	%22,63
Baso eta basoko bilketa	13,07		
Larreak, belardia, bazka eta proteaginosoak	6.765,58	112579	%6
Lugorri eta ongarrri berdea	62,17	2859	%2,17
Haziak eta haztegiak	0,60	29	%2,07
Laborantza industrialak	13,07	4830	%0,27
GUZTIRA	9.104,59	185.689	%4,90

5.6.2 2022an izandako izen-emateak eta bajak

Urteko izen-emate kopurua

Aurreko urtearekin alderatuta %52ko beherakada izan da (iaz 82, aurten 43). Aipagarria da 2008tik izan den izen-emate txikiena izan dela aurtengoa. Horrez gain, 3 ziurtagiri kendu dira jarraipen bisita egin ez izanagatik.

Ziurtagiria lortzeko interesak ordea, bere horretan jarraitzen du, 90 informazio eskaera jaso digutu.

Bestalde datu azpimagarria da, izen emateen %86ak konbentzionalean jarduten zutela eta eredu ekologikorako urratsa eman dutela.

Eragile batek hainbat jardueratan izena eman badezake ere, azpi-erolden arabera sailkatzerakoan jarduera garrantzitsuena edo nagusia zehaztu da. Alta gehienak ekoizleenak izan dira, baina 2021ean baino dezente gutxiago.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ALTAK	64	59	75	65	63	82	43
Ekoizpena	37	33	40	47	41	70	35
Elaborazioa	14	18	22	12	15	8	6
Merkaturatzea	11	6	9	4	3	3	2
Inportazioa	2	2	4	2	4	1	0

Izen-emateak lurraldearen arabera sailkatuta alta gehienak Arabakoak izan dira %41,8-a.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Izen-emateak	18	12	13	43

Ziurtatuta duten jarduera handitzeko eskaera egiten duten eragileei dagokienez, aurten beherakada izan da. Guztira 39 eskari izan dira.

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Ekoizpena	7	3	6	16
Abeltzaintza	6	2	4	12
Elaborazioa	5	3	3	11
GUZTIRA	18	8	13	39

Eskaera kopurua	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Izen- emateak				
2015	24	23	16	63
2016	19	23	22	64
2017	18	29	21	68
2018	24	23	30	77
2019	21	26	26	73
2020	20	19	26	65
2021	29	23	33	85
2022	18	12	13	43
Ziurtatutako jarduera handitzeko eskaera				
2015	15	9	7	31
2016	10	7	10	27
2017	10	17	11	38
2018	11	15	18	44
2019	8	17	20	45
2020	20	16	12	48
2021	14	17	18	49
2022	18	8	13	39

Izen emandako eragileen perfila baloratzeko, soilik ekologikoan dihardutenen ehunekoa, titular gazteak dituztenena eta emakumeen presentzia dutenena hartzen dira kontuan.

Jarduera mixto bezala ulertzen da jarduera berean eredu ekologikoa eta ez ekologikoa egitea. Jarduera eksklusibotzat aldiz, soilik ekologikoan lan egiten denean.

(*)	Guztira	Nekazal ekoizpeneko errolda	Animalia ekoizpeneko errolda	Elaborazioko errolda	Merkaturatzeko errolda
Soilik ekologikora dedikatzea	%81,4	%71,4	%25,7	%2,8	0
Titular gazteak (< 45)	%39,5	%64,7	%23,5	%11,7	0
Emakume titular edo titularkideak	%30,2	%53,8	%15,4	%30,8	0

Baja kopurua

Aurreko urteekin alderatuta inoiz baino baja gehiago izan dira. Arrazoiak aztertuz ikusi daiteke baja gehienen ondorioa nekazal jarduera utzi izana izan dela. Hori, krisiaren ondorio nabarmenatarikoa da.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BAJAK	25	31	27	22	28	27	35
Ekoizpena	17	24	13	10	21	22	21
Elaborazioa	6	3	9	7	4	3	7
Merkaturatzea	2	4	4	4	3	2	4
Inportazioa			1	1	0	0	3

Arrazoiak anitzak izan dira:

Borondatezko bajaren ARRAZIOAK		Zenbatekoa: 35
Jarduerarekin jarraitzen du baina ekologikoa egin gabe:		12
Jardueraren erabateko etendura, arrazoiak:		23
<ul style="list-style-type: none"> Heriotza Jubilazioa Lan istripua Nekazal jarduera uzten du Beste enpresa batek hartuta 		2 2 1 16 2

2022an ziurtatutako 43 jarduera berrien sailkapena**Nekazal ekoizpena:**

Alta gehienak baratzezaintzakoak eta frutagintzakoak dira, eta ondoren mahastizaintzakoak. Oraindik ere nabarmena da izen-ematea eskatzen duten zereal ekoizleen kopuru txikia edo nulua. Aipagarria da aurrerago esan bezala gatz ekoizpenean ziurtatu den eragile berria.

Enpresa berriak: (4/26) %15,3

Ekologikoan soilik dihardutenak: (25/26) %96

Titular gazteak (45 urte baino gutxiago): (11/26) %42

Emakume titular edo titularordeak: (7/26) %33

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Gatzaren ekoizpena	1			1
Fruitu lehorren laborantza			1	1
Bazka eta proteaginosoen laborantza	2			2
Frutazaintza		1	5	6
Aire libreko baratzezaintza	1	8	2	11
Mahastizaintza	5	0	0	5
NEKAZARITZA	9	9	8	26

Abeltzaintza:

%8ko igoera mantendu da. Haragitarako behien jarduerak goranzko joera mantentzen du.

Enpresa berriak: (0/9) %0

Ekologikoan soilik dihardutenak: (9/9) %100

Titular gazteak (45 utetik beherakoak): (4/9) %44

Mujeres titulares o cotitulares: (2/9) %22

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Haragitarako behia	1	0	3	4
Zaldien hazkuntza	2		1	3
Arrautzetarako hegaztien hazkuntza	1	0	1	2
ABELTZAINZA	4	6	8	9

Enpresa elaboratzaileak:

Gipuzkoan ez da elaboratzaileen altarik izan, lurralde historiko bezala elaborazioan Araba gailentzen da. Orokorrean, jaitsi egin da aurreko urtekoarekin alderatuta (8 aurreko urtean).

Enpresa berriak: (2/4) %50

Ekologikoan soilik dihardutenak: (1/6) %16

Titular gazteak (45 urtetik beherakoak): (2/4) %50

Emakume titular eta titularordeak: (2/4) %50

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Olioaren elaborazioa	2			2
Kombucharen elaborazioa		1		1
Haragiaren eraldaketa		1		1
Ardoaren elaborazioa	2		0	2
ELABORATZAILEAK	4	2	0	6

Merkaturatzea:

Izen-emate kopuruak oso txikia izaten jarraitzen du. Pisuan saltzen den saltokietan soilik delako beharrezkoa ziurtatuta egotea.

Enpresa berriak: 0/2 %0

Ekologikoan soilik dihardutenak: 0/2 %0

Titular gazteak (45 urtetik beherakoak): 0/2 %0

Emakume titular edo titularordeak: 0/2 %0

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Banaketa	1	1		2
MERKATURATZEA	1	1	0	2

6. 2022KO KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK

Kontrol-planak urtarrilaren 31n hasten dira, eta urte natural bateko iraupena dute. Txosten honetan jasotzen diren datuak 2022ko urtarrilaren 31tik 2022eko abenduaren 31ra bitartean egindako kontrolei eta hartutako ziurtapen-erabakiei dagokie, nahiz eta 2022ko kontrol gisa deskribatzen diren (2022ko kontrol-eta analisi-plana).

Kontrolatutako **espedienteen kopuruak** gora egiten jarraitu du; 710espediente 2021ean eta 2022an 721espediente.

Kalean guztira **945 kontrol egin dira**.

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kontrol kopurua	571	768	739	800	850	899	965	945
Kontrol kopurua eragileko	1,3	1,5	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3

Kontrol hauen barne daude: jarraipen auditoretzak, auditoretzak aurrez abisatuta eta abisatu gabe, ezohiko ikuskaritzak, prozesuen "in situ" auditoretzak eta homologazio berriak.

Gainera, aurretik abisatu gabe beste 65 ikuskaritza bisita egin dira laginak jasotzeko (170 lagin guztira). Aurten, Europar Batasunak ezarritako irizpideetara hurbiltzeko helburuarekin lagin kopurua jaitea erabaki zen.

Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Europar Batasuneko 2018/848 Araudian deskribatutako kontrol-sistemak, gutxienez, operadore bakoitzari **urteko kontrol** bat egitea arautzen du. 721 eragile kontrolatu dira guztira (alta berriak eta ondoren baja eman zaien espedienteak barne).

Ziurtatutako 721 eragileen artean, % 10ri kontrol-bisita gehigarriak egin zaizkie (74/721), eta laborategiko produkzioaren analisia % 9-ri (65/721). Honekin araudiak eskatutako kontrol gehigarri eta analitikoaren kopurua bete da, % 10 eta % 5, hurrenez hurren.

Guztira, 220 eragileri egin zaie kontrol-bisita bat baino gehiago, edo laginak hartu zaizkie analisirako, hau da, 2022an kontrolatutako eragile guztien % 30-ri (220/721), aurreko urtean bezala.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Bisita gehigarriak	24%	16%	14%	14%	12%	11%	10%
Laborategiko analisiak	19%	22%	18%	20%	18%	25%	9%

Ziurtatutako produktuen analisiak:

Urteko kontrol-planean, ziurtatutako jardueren mota bakoitzari laborategiko analisiak egitea adosten da. Ondoren, jarduera bakoitzean zein produkturi egingo zaion analisia adostuz.

2022an, hondakin anitzen eta transgenikoen presentziaren analisiak egin dira, landare-produktu anitzetan, batez ere barazkien eta mahatsaren hosto eta fruituetan, muztioan, eta pentsu formuletan. Bai eta ezian ere.

Aurten bi laborategirekin lan egin da; SICaAgri Almeriakoarekin eta hondakin anitzen analisisetarako Apinevada Granadakoarekin. Lagin guztiak aurrez abisatu gabe hartzen dira.

Guztira 65 lagin analizatu dira. Kasu gehienetan, laginak zuzenean jaso dira ekoizpen-unitateetan edo industriaren instalazioetan. Ondorengo taulan ikus daitezke burututako analisiak:

	Hondarrak	GEO	Sulfitoak	Metal astunak	DNA
Ardoa	8				
Bazka laboreak	10				
Transformatuak	9				
Eztia	1				
Kafe	1				
Mahatsa	19				
Pentsua	3	2			
Fruta eta barazkiak	6				
Landareak hazitarako	1				
Olioa	3				
Esnea	1				
Soja		1			
Guztira 2022	62	3			
Guztira 2021	160	6	1	1	2
Guztira 2019	128	3	1	3	
Guztira 2018	124	8			
Guztira 2017	109				
Guztira 2016	98	5	--	--	

Lagin analitikoaren emaitzak

Analizatutako laginen (65) %94ean ez da inolako kutsadura arrastorik antzeman. 4 eragilei dagozkien 4 laginetan soilik aurkitu dira , pestiziden hondakinen arrastoak.

Lehenengo eragilearen kasuan, hasierako jarraipenean kutsaduraren jatorria zein izan zitekeen ez zen argitu, eta ondorioz, kaltetutako uzta animalien elikadurara bideratu zen. Jaso zuen bigarren bisitan laginaren emaitza zuzena izan zen.

Beste bi eragilen kasuetan, fitosanitarioak aplikatzeko makineria ondo ez garbitzeagatik agertu zen kutsadura, eta kaltetutako produkzioa deskalifikatzea erabaki zen.

Azkenengoari dagokionez, bazka bolako laginak izan zuen kutsadura eta ez zen argitu jatorria. Bigarren lagina hartu zitzaion , eta honetan ere emaitza garbia izan zen.

Soilik kasu batean ez zen ziurtagiria osotasunean eman, upategiaren ziurtapena bertan behera gelditu zelako. Beste kasu batean, bigarren produkzioan beste lagin bat hartu zen, eta ondo ateratzearen ondorioz ziurtagiria ebatzi zen. Falta diren beste kasuetan, ziurtagiria berriztatu zen.

Egindako kontroletatik eratorritako ziurtapen-erabakiak

1. Taulan detektatutako ezadostasunak zerrendatzen dira eta hauetako batzuk aurreko atalean aipatutako saiakuntza analitikoetatik eratorriak dira.

Kontrolatutako 721 expedienteetatik 3tan ziurtagiria kendu zen.

1. Taula- LAGINETAK AURKITUTAKO EZADOSTASUNEN LABURPENEA

2022 URTEA 721 eragileri burutu zitzairen jarraipena.

Araudiaren gaia	Espediente kopurua (*)	Ezadostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Emaizta analitiko desegokia	4	Laborategiko emaitza: Ardoan hainbat substantziaren arrastoen agerpena	Upategia ez ziurtatzea
		Laborategiko emaitza: Ardoan substantzia arrastoen agerpena.	Lotea deskalifikatu eta ziurtagiria berriztatu.
		Laborategiko emaitza: Olioan aurkitutako kutsaduraren jatorria ezezaguna izan da.	Lotea deskalifikatu eta bigarrena garbi atera ostean, ziurtagiria eman.
		Laborategiko emaitza: Bazka bolan substantzia arrastoak agertzearen ondorio da.	Bigarren laginan emaitza garbia. Ziurtagiria berriztatu
Errotazioak ondo ez egitea	1	Landaketa estentsibotan ez ziren errotazio egokiak errespetatu.	Ziurtagiriaren berritzea
Erregistroen falta	2	Ekoizpen erregistroak ez ditu eguneratuta.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Etiketatuan akatsa	5	Etiketa ez zegoen ondo eginda.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
EKO ez diren produktuak saltzea ekologikoak balira bezala	1	Produktu ez ekologikoak saltzea bere otarretan.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Auditoretza jarraipena egiteko oztopoak	4	3 kasuetan ezinezkoa izan da auditoretza egitea.	Ziurtagiria kendu
		Auditoretzan eskatutako informazioa ez da jaso	Eskaera artxibatu

Hazien jatorria	2	Baldintzak betetzen ez dituen hazi ez ekologikoak erabili izana.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
		Hazi ez ekologikoak erabiltzeko eskaera egin gabe hazi ez ekoak erabili izana.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Araudian onartzen ez den substratoa erabiltzea	1	Landare batzuen hazitegia egiteko substrakto ez ekologikoaren erabilera.	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Trazabilitate jarraipen desegokia	1	Trazabilitate sistema desegokia	Ziurtagiria berriztatu
Pentsu ez ekologikoaren erabilera	1	Animalien bilakaera epea luzatu. Bigarren bisita batean araudia betetzen dela konprobatzen da.	Ziurtagiria eman

(*)Espediente hauetako batzuk hainbat ez-adostasun dituzten titular bakarraren izenean daude.